

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2018/19 denboraldia

28ZK. DUN ZIRKULARRA

ERREGE KOPAN SAILKATZEKO ALDIA

Datorren denboraldian Errege kopan parte hartuko duen lurralde mailako euskal kluba argitzeko asmoz, eta Zuzendaritza Batzordea hitzarturiko txapelketa-oinarriari jarraiki, goian aipaturiko sailkapen fasea antolatu da, ondoko arauak oinarri harturik:

1. Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko Hirugarren mailara igo diren klubak:

- | | |
|--------------------|------------|
| - C.D. Ariznabarra | (Alava) |
| - Urduliz F.T. | (Bizkaia) |
| - Tolosa C.F. | (Gipuzkoa) |

2. Txapelketa-sistema

Errege kopan sailkatzeko aldia itzuli bakarreko Liga-sistemaren bitartez jokatu da.

3. Datak

Partidak ondoko egunetan jokatu dira: ekainaren 2an, 9an eta 16an.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Partiden Jardunaldiak eta Ordutegiak

Partiden jardunaldi eta ordutegi ofizialak honako gutunean zehaztu dira. Hala ere, partida antolatzen duen klubak larunbat arratsaldera aurreratu dezake, 15.30tik aurrera jokatzuz gero, aurkariari baimenik eskatu gabe. Hori alde batera utzirik, jardunaldia aldatu nahi duen klubak Euskadiko Federakundeari zazpi egun lehenago jakinarazi behar dio, betiere aurkariari baimena eskaturik. Aurkariak ere era berean adierazi behar du baimen hori.

Partidaren ordutegia nahiz jokalekua Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi behar zaizkio (Fax 94-4732221, webmaster@eff-fvf.eus), norgehiagoka jokatu baino zazpi egun lehenago. Aurreko guztia talde aurkariari ere jakinarazi behar zaio.

5. Jokalarien Aldaketak

Partidetan, gehienez, bost aldaketa egin ahalko dira.

6. Berdinketak

EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4. Artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Epaileak

Partidak zuzentzeko izendatutako epaileak Hirugarren mailako epaileak izango dira. Lehian ariko diren taldeena ez den beste Lurralde Federakunde batekoak izango dira, eta hiru ordainagiriaren gastuak hiru klubek kontura izango dira, kantitate berdinetan.

Klubek epailearen ordainagiriak ordaindu behar izango dituzte lehiaketako bere parte hartzea bukatu ondoren. Ordainketa Euskadiko Futbol Arbitroen Batzordera banku transferentziaren bitartez izango da. Lehiaketa bukatu ondoren Euskadiko Futbol Arbitroen Batzordeak kontu zenbakia eta ordaindu behar den kopuruaren dokumentua klubei bidaliko die.

8. Diziplina Batzordea

Fase Erregularra (Liga) amaitzean, indarrean dauden partaide guztien ohartarazpen zikloak automatikoki ezabatuak izango dira.


Ligako etenaldi zigor inposatuen inguruan –bai ohartarazpen metatzeagatik eta bai kanporatzeagatik – oraindik betetzeko daudenak, ez dira indargabetuko eta lgoera Fasean bete egin beharko dira.

Partidak bukatutakoan, epailearen aktak Euskadiko Futbol Federakundera bidali behar dira, Diziplina Batzordeak erabakia hartu eta jakinaraz dezan, hala behar izanez gero.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezten, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbo, 2019ko maiatzaren 27a

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

FASE CLASIFICACIÓN COPA S.M. EL REY

ERREGE KOPAN SAILKATZEKO ALDIA

EGUTEGIA / CALENDARIO

EKAINAREN 2AN / 2 DE JUNIO

Urduliz F.T. – Tolosa C.F.

C.D. Ariznabarra

(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 9AN / 9 DE JUNIO

C.D. Ariznabarra – Urduliz F.T.

Tolosa C.F.

(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 16AN/ 16 DE JUNIO

Tolosa C.F. – C.D. Ariznabarra

Urduliz F.T.

(ATSEDENA)
(DESCANSA)

-O-O-O-O-O-O-O-O-O-